

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

363

AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 22koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako karrerako funtzionario batzuk izendatzen baitira (Idazkaritza, Kontu-hartzailletza-Diruzaintza eta Idazkaritza-Kontu-hartzailletza azpieskalakoak) eta lehen destinoa esleitzen baitzaie, Euskal Autonomia Erkidegoko egonkortze-prozesuen esparruan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 12ko aginduaren bidez Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen egonkortze-prozesuen oinarri orokorrak onetsi ziren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 12ko Aginduaren bidez, Idazkaritzako azpieskalan, Sarrerako kategorian, sartzeko hautaketa-prozesua onartu zen. Agindu horren eranskinean xedatzen denez, Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako Idazkaritzako azpieskalako 9 plazen deialdia egiten da, Sarrerako kategorian, txanda ireki bidez (lehiaketa-sistema), 4. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela, honela banatuta:

- a) Sarbide orokorraren modalitatea: 8.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 12ko Aginduaren bidez, Kontu-hartzailletza-Diruzaintzako azpieskalan, Sarrerako kategorian, sartzeko hautaketa-prozesua onartu zen, lehiaketa-sistemaren bidez.

Agindu horren I. eranskinean xedatzen denez, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako Kontu-hartzailletza-Diruzaintzako azpieskalako 16 plazen deialdia egiten da, Sarrerako kategorian, txanda ireki bidez (lehiaketa-sistema), honela banatuta:

- a) Sarbide orokorraren modalitatea: 15.
3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1.
4. hizkuntza-eskakizunarekin: 14.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1.
4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1.

Agindu horren II. eranskinean xedatzen denez, Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako Kontu-hartzailletza-Diruzaintzako azpieskalako 2 plazen deialdia egiten da, Sarrerako kategorian, txanda ireki bidez (oposizio-lehiaketaren sistema), 4. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela, honela banatuta:

- a) Sarbide orokorraren modalitatea: 2.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 0.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 12ko Aginduaren bidez, Idazkaritza-Kontu-hartzaitzako azpieskalan sartzeko hautaketa-prozesua onartu zen.

Agindu horren I. eranskinean xedatzen denez, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen eskalako Idazkaritza-Kontu-hartzaitzako azpieskalako 24 plazen deialdia egiten da, txanda ireki bidez (lehiaketa-sistema), 4. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela, honela banatuta:

- a) Sarbide orokorraren modalitatea: 22.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 2.

Agindu horren II. eranskinean xedatzen denez, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen eskalako Idazkaritza-Kontu-hartzaitzako azpieskalako plaza baten deialdia egiten da, txanda ireki bidez (lehiaketa-sistema), honela banatuta.

- a) Sarbide orokorraren modalitatea: 1.
- Hizkuntza-eskakizunik gabe (3. hizkuntza-eskakizuna, ez-nahitaezkoa): 1.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 0.

Agindu horren III. eranskinean xedatzen denez, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen eskalako Idazkaritza-Kontu-hartzaitzako azpieskalako 3 plazen deialdia egiten da, txanda ireki bidez (oposizio-lehiaketaren sistema), honela banatuta.

- a) Sarbide orokorraren modalitatea: 3.
- 4.– Hizkuntza-eskakizunarekin: 3.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 0.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2025eko martxoaren 11ko Ebazpenaren bidez (2025eko martxoaren 17ko EHAA), gaindituzat jotako izangaien eta lehiaketetan punturik gehien lortutako pertsonen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindu zen, betiere zortzigarren oinarri orokorrean ezarritako baldintzak betez gero.

Ebazpen horren 2. artikularen arabera, 20 egun balioduneko epea ireki zen praktiketako funtzionario izendatzeko eskaera aurkezteko.

Ebazpenaren 5. artikularen arabera, azpieskala batean baino gehiagotan behin betiko gaindituzat jotako izangaiek praktiketako funtzionario haietako bakar batean izendatzea eta hautaketa-ikastaro batean bakarrik onartua izatea aukeratu behar izan dute. Ondorioz, aukeratu ez dituzten azpieskaletako hautaketa-prozesuetan lortutako eskubideak galdu dituzte.

Besteak beste, aurrekoaren ondorioz, 20 eguneko hiru epe gehigarri ireki ziren, praktiketako funtzionario izendatzeko eskaerak aurkezteko (2025eko ekainaren 9ko, uztailaren 18ko eta irailaren 22ko ebazpenak, hurrenez hurren, 2025eko ekainaren 13ko, abuztuaren 4ko eta irailaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuak).

Aurreko apartatuetan adierazitakoaren arabera, hautatutako izangaien zerrenda osatu ostean, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2025eko azaroaren 6ko Aginduaren bidez praktiketako funtzionario izendatu ziren hautaketa-prozedura horietan hautatutako izangaia.

Idazkaritza-Kontu-hartzaitzako azpieskalan (lehiaketa) praktiketako funtzionario izendatutako bi pertsonak atzera egin dutenez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2025eko azaroaren 18ko Aginduaren bidez, praktiketako funtzionario izateko izendapen osagarriak egin ziren, aipatutako atzera egite horien ondorioz hutsik geratutako lanpostuak betetzeko.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonen hautaketa-ikastaroa eta praktikaldia amaitu eta gainditu dutenez, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2025eko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez, hautaketa-ikastaro osoa gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu zen, eta 10 eguneko epea ireki zen adjudikatu beharreko destinoen lehentasun-ordena adierazteko.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu denez, karrerako funtzionario izendatu behar dira, eta dagokien destinoa esleitu. Horretarako, kontuan hartu behar dira hautaketa-prozesu bakoitzean lortutako ordena (Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2026ko urtarrilaren 19ko Ebazpenean jasotzen denaren arabera) eta adierazitako lehentasun-ordena. Izendapenak, era berean, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 54. artikuluan xedatutako ondorioak izango ditu.

Kontuan izanik desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako eta haiek betetako plazak ez direla eskainitako plazen % 3ra iristen, laugarren oinarri orokorrarekin bat etorritik, bete gabeko plazak hurrengo enplegu publikoaren eskaintzaren ehuneko zazpiko kupoari gehitu behar zaizkio –muga, gehienez ere, % 10 izango da–, bat etorritik, betiere, Desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikorako sarbidea izatea eta lanpostuak betetzea arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuarekin.

Era berean, esan behar da, praktikaldia amaituta, Idazkaritza eta Kontu-hartzaitza-Diruzaintza azpieskaletan hautaketa-ikastaroa gainditu zuten bi pertsonen prozeduran ez jarraitzeko borondatea adierazi dutela.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen I. eranskinean zerrendatzen diren hautagaiak Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako Idazkaritzako azpieskalako karrerako funtzionario izendatzea.

Bigarrena.– Agindu honen II. eranskinean zerrendatzen diren hautagaiak Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako Kontu-hartzaitza-Diruzaintzako azpieskalako karrerako funtzionario izendatzea.

Hirugarrena.– Agindu honen III. eranskinean zerrendatzen diren hautagaiak Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako Idazkaritza-Kontu-hartzaitzako azpieskalako karrerako funtzionario izendatzea.

Laugarrena.– Agindu honen I., II. eta III. eranskinetan hurrenez hurren zerrendatzen diren lanpostuak lehen destino gisa esleitzea aipatutako funtzionarioei, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Destino hori behin betikoa da, eta ezin izango dute inolako lehiaketatan parte hartu bi urteko epean, ez eta behin-behineko izendapenik eskatu ere, aipatutako errege-dekretuaren 22.f) artikulua arabera.

2026ko urtarrilaren 27a, asteartea

Bosgarrena.– Lanpostuaz jabetzeko, hilabeteko epea zabalduko da, ebazpen hau «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Aurka egiteko, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daskioke Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 22a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

I. ERANSKINA

Idazkaritza azpieskala, sarrerako kategoria.

Sistema: lehiaketa (4. HE).

Lanpostuak	Karrerako funtzionarioak	Destinoa
1	Ocariz Badiola, Lucia	Zumarragako Udaleko 2. mailako idazkaria
2	Aroztegui Apaolaza, Maria de Iciar	Beasaingo Udaleko 2. mailako idazkaria
3	Mendizabal Garate, Francisco Javier	Aretxabaletako Udaleko 2. mailako idazkaria
4	Urgoiti Aguirre, Gorka	Zumaiako Udaleko 2. mailako idazkaria
5	Madinabeitia Jauregui, Jesus Maria	Legazpiko Udaleko 2. mailako idazkaria
6	Alkorta Elorza, Nagore	Urretxuko Udaleko 2. mailako idazkaria
7	Longaray Barruetabeña, Miren Jasone	Mutrikuko Udaleko 2. mailako idazkaria

II. ERANSKINA

Kontu-hartzailletza-Diruzaintza azpieskala, sarrerako kategoria.

Sistema: lehiaketa.

(4. HE: 14; 3. HE: 1).

Lanpostuak	Karrerako funtzionarioak	Destinoa
1	Mendoza Garrastazu, Garikoitz	Irungo Udaleko 1. mailako diruzaina
2	Alegria Lasa, Maria Lourdes	Beasaingo Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
3	Urrutia Uriarte, Miren Edurne	Andoaingo Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
4	Zurutuza Arza, Aitziber	Urnietako Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
5	Etxarri Ubeda, Nerea	Elgoibarko Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
6	Fuertes Matxin, Isabel	Pasaiaiko Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
7	Muñoa Salaberria, Lierni	Zumarragako Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
8	Lizaso Ubera, Karmele	Lezoko Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
9	Amarika Bidaurratzaga, Ainize	Leioako Udaleko 1. mailako diruzaina
10	Azpillaga Echeverria, Nerea	Bergarako Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
11	Otaegui Irureta, Maria Jesus	Ibarrako Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
12	Iturrioz Nazabal, Jon	Aretxabaletako Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
13	Olano Garmendia, Ainhoa	Ordiziako Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea
14	Jaio Gabiola, Egoitz	Gernika-Lumoko Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea

Sistema: oposizio-lehiaketa.

(4. HE).

Lanpostuak	Karrerako funtzionarioak	Destinoa
1	Etxezarreta Abasolo, Miren Edurne	Zarauzko Udaleko 1. mailako diruzaina
2	Arenaza Bengoa, Begoña	Urretxuko Udaleko 2. mailako kontu-hartzailea

III. ERANSKINA

Idazkaritza-Kontu-hartzailletza azpieskala.

Sistema: lehiaketa.

(4. HE).

Lanpostuak	Karrerako funtzionarioak	Destinoa
1	Urbizu Urreaga, Olga	Altzoko Udaleko 3. mailako idazkaria
2	Etxeberria Urretabizkaia, Maria	Errezil-Hernalde elkarteko 3. mailako idazkaria
3	Gomez Urteaga, Ane	Alkiza-Larraul elkarteko 3. mailako idazkaria
4	Alustiza San Vicente, Igor	Ormaiztegiko Udaleko 3. mailako idazkaria
5	Pineda Aramburu, Saioa	Ajangizeko Udaleko 3. mailako idazkaria
6	Otaegui Leunda, Xabier	Idiazabalgo Udaleko 3. mailako idazkaria
7	Iribar Garrastazu, Ioseba	Legorretako Udaleko 3. mailako idazkaria
8	Alaña Capanaga, Enrique	Muxikako Udaleko 3. mailako idazkaria
9	Saiz Pagoaga, Jose Maria	Ikaztegiako Udaleko 3. mailako idazkaria
10	Zabala Zubizarreta, Maria Elena	Amezketako Udaleko 3. mailako idazkaria
11	Agirreurreta Murgia, Bittor	Aramaioko Udaleko 3. mailako idazkaria
12	Goikoetxea Cestona, Gotzon	Elgeta/Leintz-Gatzaga elkarteko 3. mailako idazkaria
13	Olabarriaga Belasko, Garazi	Mendexako Udaleko 3. mailako idazkaria
14	Sagastagoia Zabala, Itziar	Gautegiz-Arteagako Udaleko 3. mailako idazkaria
15	Lapatza-Gortazar Bengos, Patxi Jagoba	Leaburu-Gaztelu elkarteko 3. mailako idazkaria
16	Esnaola Carrera, Eider	Berastegi-Elduain elkarteko 3. mailako idazkaria
17	Garzia Arruabarrena, Andoni	Belauntzako Udaleko 3. mailako idazkaria
18	Maeztu Perez, Daniel	Gamiz-Fikako Udaleko 3. mailako idazkaria
19	Ostolaza Arruabarrena, Oihan	Bidania-Goiaz-Berrobi elkarteko 3. mailako idazkaria
20	Esnaola Galan, Nerea	Zaldibia-Gaintza elkarteko 3. mailako idazkaria
21	Arrizabalaga Gainza, Irantzu	Zegamako Udaleko 3. mailako idazkaria
22	Gomez Oleagoitia, Maite	Artea-Arantzazu elkarteko 3. mailako idazkaria
23 (*)	Babaze Aizpurua, Jokin	Arabako Iekora-Moreda Araba elkarteko 3. mailako idazkaria

(*) I.1.b oinarri espezifikoa zehaztutako sarbide-modalitatea.

3. HE, ez-nahitaezkoa.

Lanpostuak	Karrerako funtzionarioak	Destinoa
1	Larrarte Querejeta, Ana Maria	Arria-Maeztuko Udaleko 3. mailako idazkaria

Oposizio-lehiaketa.

(4. HE).

Lanpostuak	Karrerako funtzionarioak	Destinoa
1	Garmendia Txurio, Alazne	Areatzako Udaleko 3. mailako idazkaria
2	Oteiza Lasagabaster, Aritz	Navaridas-Leza elkarteko 3. mailako idazkaria
3	Sainz De La Maza Bilbao, Xabier	Mañueta-Eskuernaga-Samaniego elkarteko 3. mailako idazkaria